



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abenduaren 13a

142. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzekoa (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailean planteatzen diren inbertsioei buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroan atletismoko modulu edo pista estali batek izanen lukeen kostuari buruzko txosten edo azterlan bat egiteari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Kirolaren Kontseilu Nagusiari Nafarroak kirol azpiegituren arloan dauzkan beharrianak jakinarazteari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, kirol-entitate pribatuekiko lankidetzahitzarmenei buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, etorkizuneko beisbol-zelaiaren kokalekuari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko proiektuari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (8. or.).
- Galdera, N-121-A eta A-15 errepideetako obren egutegiari eta obrari berari dagokienez Nafarroako Gobernua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatzeari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren iragan irailaren 3ko agendari buruzko informaziorik ez emateari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuako lehendakariaren iragan irailaren 7ko agendari buruzko informaziorik ez emateari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 11. eta 12. neurriei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 13. eta 14. neurriei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).

- Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 15. eta 16. neurriei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, enpresaburuak Cirmauto enpresa ixteari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Estatuko segurtasun indar eta kidegoek Nafarroako larrialdiak koordinatzeko zentroan parte hartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## Foru Lege proiektua, Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2021eko azaroaren 24an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzeko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzeko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila (10-21/LEY-00012).

2. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko epea irekiko da, **2022ko urtarrilaren 5eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Foru Lege proiektua, Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzekoa

### ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioak 36. artikuluan ezartzen du lege bidez arautuko direla lanbide elkargoen araubide juridikoari dagozkion berezitasunak eta lanbide tituludunen jarduna. Adierazten du,

halaber, elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan behar dutela.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 44.26 artikuluan, xedatzen du Nafarroak eskumen eskusiboa duela elkargo ofizialen eta lanbide tituludunen jardunaren arloetan, legeria orokorrari jarraikiz betiere.

Eskumen horiek erabiliz eman zen Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea, abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez onetsitako erregelamenduz garatua. Foru dekretu horretan ezartzen dira lanbide elkargo bat sortzeko eskaerarako baldintzak eta prozedura.

Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legearen 8. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean lanbide elkargoak foru lege bidez sortuko dira eta beharrezkoa izanzen da horretarako eskaera egitea Nafarroan helbidea izan eta elkargoa sortzeko eskaeraren xede den jardunerako titulazio ofiziala duten profesional gehienek.

Aipatutako lege aginduan xedatutakoarekin bat, eta kontuan izanik Nafarroako Foru Komunitateak lanbide elkargoen arloan bere gain hartutako eskumenak, Itxaso Badell Lizarraga andreak, logopediako 53 profesionalen izenean, eskatu dio Nafarroako Gobernuari Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzeko.

Logopediaren aitortza akademikoa eta prestakuntzako ezarrita dago honako agindu hauetan: abuztuaren 30eko 1419/1991 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baitira logopediako diplomadunaren unibertsitate titulu ofiziala eta titulu hori lortzeko ikasketa planei dagozkien jarraibide orokorrak; urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baita unibertsitate ikasketa ofizialen antolamendua; eta martxoaren 18ko CIN/726/2009 Agindua, zeinaren bidez ezartzen baitira logopeda lanbidean jardute-

ko gaitzen duten unibertsitate titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak.

Logopediaren diziplinak biltzen ditu honako hauen azterketa, prebentzioa, ebaluazioa, diagnostikoa eta tratamendua, bai haurrei bai helduei zuzenduta: giza komunikazioaren nahasmenduak eta ahotsaren, mintzamenaren, hizkuntzaren (ahozkoa, idatzizkoa eta keinu bidezkoa), entzumenaren eta funtzio orofazialen patologien eta asalduren adierazpenak.

Osasun lanbide bat da, arautua eta aitortua (Osasun arloko Lanbideen Antolaketari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 7. artikulua), eginkizun sozial garrantzitsua betetzen duena, logopedak giza komunikazioaren eta haren nahasmenduen eremuetan hainbat zereginetan aritzen baitira: prebentzioa, detekzioa, administrazioa, ebaluazioa, diagnostikoa, tratamendua, errehabilitazioa, gaikuntza, pronostikoa, orientazioa, aholkularitza, irakaskuntza eta ikerketa, osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte ongizatearen arloetan.

Azaldutakoa dela eta, eta kontuan hartuz interes publikoko arrazoiak daudela Nafarroako Logopeden Elkargo bat egoteko, foru lege honen bidez sortzen da lanbide elkargo hori, eta bertako kide izatea nahitaezko baldintza izanen da Nafarroan lanbide horretan aritzeko, non ez den frogatzen beste lurralde bateko lanbide bereko elkargoko kide izatea.

#### **1. artikulua.** Foru legearen xedea.

Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzen da.

#### **2. artikulua.** Lanbide elkargoaren izaera juridikoa.

1. Lanbide elkargoa zuzenbide publikoko korporazio bat da, nortasun juridiko propioa duena foru lege honek indarra hartzen duenetik, bai eta jarduteko gaitasun osoa ere bere helburuak eta eginkizunak betetzeko gobernu organoak eratzen direnetik aurrera.

2. Lanbide elkargoak barne egitura eta funtzionamendu demokratikoak izan behar ditu, eta honakoek zuzendu behar dute bere jarduna: bere estatutuetan xedatutakoa, foru lege hau, Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea eta hura garatzen duen araudia, eta lanbide elkargoen arloko estatuko oinarritzko araudia.

#### **3. artikulua.** Lurralde eremua.

Nafarroako Logopeden Elkargoaren jarduteko lurralde eremua Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea izanen da.

#### **4. artikulua.** Pertsona eremua.

Nafarroako Logopeden Elkargoko kide izaten ahalko dira:

a) Logopediako diplomako edo graduako unibertsitate titulua dutenak, bat etorri Logopediako diplomaren unibertsitate titulu ofiziala eta hura lortzeko ikasketa planei dagozkien jarraibide orokorrak ezartzen dituen abuztuaren 30eko 1419/1991 Errege Dekretuan ezarritakoarekin eta Unibertsitateko ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan, bai eta logopedaren lanbidean aritzeko gaitzen duten unibertsitate titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 18ko CIN/726/2009 Aginduan xedatutakoarekin ere.

b) Agintaritza eskudunak behar bezala homologaturiko atzerriko titulu bat dutenak.

c) Lanbiderako onartutako titulu bat dutenak, logopeda lanbidean aritzeko gaitzen duen Europar Batasunaren araudiarekin bat.

d) Lehen xedapen iragankorrean ezarritako moduan eskatzen dutenak.

#### **5. artikulua.** Elkargoan kideitu beharra.

Nafarroako Foru Komunitatean logopeda lanbidean jarduteko, nahitaezko baldintza izanen da Nafarroako Logopeden Elkargoko kide izatea, deusetan galarazi gabe Nafarroako lanbide elkargoei buruzko legedian eta estatuko oinarritzko legedian ezarritakoa.

#### **6. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko harremanak.

Alde instituzional eta korporatiboei dagokienez, Nafarroako Logopeden Elkargoak lanbide elkargoen arloan eskumena duen departamentuaren bitartez bideratuko ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko harremanak. Lanbideak berezko dituen edukiei dagokienez, berriz, arloa zein den, horri dagokion departamentuarekin izanen ditu harremanak.

#### **Xedapen gehigarri bakarra.** Lanbide Elkargoen Kontseiluaren eginkizunak.

Nafarroako Logopeden Elkargoak, zeina orokorra baita Nafarroako Foru Komunitateko lurralde guztian hedatuta dagoelako, bere gain hartuko ditu, bidezkoa denean, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legeak Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseiluentzat zehazten dituen eginkizunak.

**Lehen xedapen iragankorra.** Beste titulu batzuk dituzten profesionalak sartzea.

Nafarroako Logopeden Elkargoan sartzen ahalko dira, baldin eta eskatzen badute foru lege honek indarra hartu eta bi urteko epean, logopediako diploma edo gradua izan gabe hizkuntzaren eta entzumenaren nahasmenduen arloan lan egin edo lan egiten dutenak, egoera hauetako batean badaude:

1. Logopediaren arloan abuztuaren 30eko 1419/1991 Errege Dekretuak indarra hartu aurreko bost urteetan lan egin dutela frogatzen dutenak, titulu hauetako bat badute:

a) Entzumenaren eta ahozko eta idatzizko hizkuntzaren nahasmenduetan espezializatutako irakaslearen titulua, hezkuntzaren arloko eskumena duen ministerioak emandakoa.

b) Hizkuntzaren eta entzumenaren nahasmenduen arloko espezialistaren diploma ofiziala (logopedia), edozein unibertsitatek eman eta ondoren hezkuntzaren arloko eskumena duen ministerioak homologatutakoa.

2. Logopediaren arloan abuztuaren 30eko 1419/1991 Errege Dekretuak indarra hartu zuenetik logopediako diplomadun ofizialen lehen promozio nazionala atera arte 1995eko abenduaren 31 baino lehen aritu izana frogatzen dutenak, aurreko paragrafoan aipatzen diren tituluetako bat badute.

3. Osasun Zientzien edo Hezkuntzaren arloko unibertsitate titulu bat, lizentzia bat edo diploma bat dutenak, osasun arloan logopediari dagozkion lanetan gutxienez hamar urteko lanbide esperientzia, foru lege honek indarra hartu aurrekoa, dutela frogatzen badute.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Kudeaketa Batzordea

Eskatzaileek beren artean aukeratuko dute behin-behineko kudeaketa batzorde edo gobernu batzorde bat, foru lege honek indarra hartzen duenetik sei hilabeteko epean onartu beharko dituen Nafarroako Logopeden Elkargoaren behin-behineko estatutuak.

Estatutu horietan elkargoaren eratze-batzarra arautu beharko da, deialdia egiteko modua eta garatzeko prozedura ezarritik.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** Elkargoaren eratze-batzarra eta estatutuak.

1. Elkargoaren eratze-batzarraren deialdiari ahalik eta publizitate handiena ematen zaiola bermatu beharko da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean hedapen handiena duten egunkarietan argitaratuz.

2. Elkargoaren eratze-batzarraren eginkizunak hauek izanen dira:

a. Elkargoaren behin betiko estatutuak onestea.

b. Elkargoaren organoetan kasuan kasuko karguak bete behar dituztenak hautatzea.

3. Elkargoaren behin betiko estatutuak, onetsi ondoren, elkargoaren eratze-batzarraren aktaren ziurtagiriarekin batera, igorri beharko zaizkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan lanbide elkargoaren arloko eskumena duen departamentuari, eta horrek, legezketasun-kalifikazioa eman eta gero, aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailean planteatzen diren inbertsioei buruzkoa.***ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailean planteatzen diren inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Kirolaren Institutuak Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailean planteatzen dituen inbertsioetan, toki entitateentzako laguntza juridiko eta tekniko sartzan al da ala horiek beren gain hartu beharko duten kostu bat da?

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

---

**Galdera, Nafarroan atletismoko modulu edo pista estali batek izanen lukeen kostuari buruzko txosten edo azterlan bat egiteari buruzkoa.***ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan atletismo-koko modulu edo pista estali batek izanen lukeen kostuari buruzko txosten edo azterlan bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Legegintzaldia abiarazi zenetik, departamentuak azterlanik edo txostenik egin al du, edo

enpresa nahiz entitate bati agindu al dio txostena edo azterlana egin dezan Nafarroan atletismoko modulu edo pista estali batek izan lezakeen kostuari buruz? Hala baldin bada, nori egin dio mandatua eta zein da aurreikusitako kostua?

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

---

**Galdera, Kirolaren Kontseilu Nagusiari Nafarroak kirol azpiegituren arloan dauzkan beharrianak jakinarazteari buruzkoa.**

**ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Kirolaren Kontseilu Nagusiari Nafarroak kirol azpiegituren arloan dauzkan beharrianak jakinarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Kirolaren Institutuak edo departamentuak Kirolaren Kontseilu Nagusiari jakinarazi al zioten inoiz Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailea baino lehen zeintzuk ziren Nafarroak azpiegituren arloan dauzkan beharrianak? Hala baldin bada, zeintzuk jakinarazi zitzaizkion? Zergatik horiek eta ez beste batzuk?

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

---

**Galdera, kirol-entitate pribatuekiko lankidetzahitzarmenei buruzkoa.**

**ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea kirol-entitate pribatuekiko lankidetzahitzarmenei buruz Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Kirol Azpiegiturei buruzko Pan Zuzendariari dagokionez, departamentuak zer dela-eta egin nahi ditu lankidetzaz-hitzarmenak kirol entitate pribatu batzuekin? Zergatik horiekin eta ez beste batzuekin?

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

**Galdera, etorkizuneko beisbol-zelaiaren kokalekuari buruzkoa.***ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea etorkizuneko beisbol-zelaiaren kokalekuari buruz Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kirol Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Departamentuak zer kokaleku darabil gogoan Kirol Azpiegituren Plan Zuzentzailean etorkizunari begira planteatzen den beisbol-zelaia eraikitzeko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

**Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko proiektuari buruzkoa.***ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko proiektuari buruz Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak ondo-rioztatu zuen, eta hala adierazi zuen, Almandozko hegoaldeko ahoko lotunea dela konponbiderik egokiena ikuspuntu tekniko eta ekonomikotik nahiz ingurumenaren ikuspuntutik, bai eta segur-

tasuna bermatzen duela ere Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko obran Mendiolako auzunearekiko lotunea egitean. Hori da, hain zuzen ere, auzokideen alegazioei eta eskariei emandako erantzuna.

Hori al da proiektua behin betikoz onesten denean jasoko dena? Hori al da Almandozko herriari emanen zaion erantzuna?

Nafarroan, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

---

**Galdera, N-121-A eta A-15 errepideetako obren egutegiari eta obrari berari dagokienez Nafarroako Gobernua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatzeari buruzkoa.**

*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, N-121-A eta A-15 errepideetako obren egutegiari eta obrari berari dagokienez Nafarroako Gobernua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernua eta Gipuzkoako Foru Aldundia nola eta zer baliabiderek koordinatu dira N-121-A errepidean Endarlatsatik Behobiara doan tarteko obren egutegia egiteko, N-121-A errepidea 2+1 bide bihurtzeko obra egiteko eta A-15erako iragarri diren obretarako?

Nafarroan, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

## **Galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren iragan irailaren 3ko agendari buruzko informazioz ez emateari buruzkoa.**

*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkezturiko galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren iragan irailaren 3ko agendari buruzko informazioz ez emateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Bigarren lehendakariorde eta Barneko kontseilari Javier Remírez Kataluniako bere homologo Joan Ignasi Elenarekin bildu zen irailaren 3an, baina Nafarroako Gobernuak ez zuen lehendakariordearen egun horretako agendari buruz informatu. Zergatik?

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren iragan irailaren 7ko agendari buruzko informazioz ez emateari buruzkoa.**

*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren iragan irailaren 7ko agendari buruzko informazioz ez emateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

María Chivite lehendakaria Espainiako Gobernuko Lurralde Politikako ministro Isabel Rodríguezekin bildu zen irailaren 7an, baina Nafarroako Gobernuak ez zuen lehendakariaren egun horretako agendari buruz informatu. Zergatik?

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

## **Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 11. eta 12. neurriei buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 11. eta 12. neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 11. eta 12. neurri gisa jaso du Arartekoaren web-orrira sartzeko araudia betetzen ote den katalogatzea eta web-orrira araudira egokitzeko jarduketa plan bat egitea. Zergatik?

2. Jarduketa horri ekin baldin bazaio, nork eskatuta egin da? Zer tresna dago hori egitea Telekomunikazioetako Zuzendaritza Nagusiari agintzeko?

3. Zenbateko kostua izan dute bi jarduketa horiek? Aurrekontuko zer partidaren kargura finantzatu dira? Nori eman zaio jarduketa horiek egiteko agindua?

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 13. eta 14. neurriei buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 13. eta 14. neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldaketako 13. eta 14. neurri gisa jaso du Nafarroako Parlamentuaren web-orrira sartzeko araudia betetzen ote den katalogatzea eta web-orrira araudira egokitzeko jarduketa plan bat egitea. Zergatik?

2. Jarduketa horri ekin baldin bazaio, nork eskatuta egin da? Zer tresna dago hori egitea

Telekomunikazioetako Zuzendaritza Nagusiari agintzeko?

3. Zenbateko kostua izan dute bi jarduketa horiek? Aurrekontuko zer partidaren kargura finantzatu dira? Nori eman zaio jarduketa horiek egiteko agindua?

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## **Galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldatetako 15. eta 16. neurriei buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldatetako 15. eta 16. neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak Irisgarritasunari buruzko 2021eko Plan Operatiboko 1. aldatetako 15. eta 16. neurri gisa jaso du Kontuen Ganberaren web-orriara sartzeko araudia betetzen ote den katalogatzea eta web-orria araudira egokitzeko jarduketa plan bat egitea. Zergatik?

2. Jarduketa horri ekin baldin bazaio, nork eskatuta egin da? Zer tresna dago hori egitea Telekomunikazioetako Zuzendaritza Nagusiari agintzeko?

3. Zenbateko kostua izan dute bi jarduketa horiek? Aurrekontuko zer partidaren kargura finantzatu dira? Nori eman zaio jarduketa horiek egiteko agindua?

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, enpresaburuak Cirmauto enpresa ixteari buruzkoa.**

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea enpresaburuak Cirmauto enpresa ixteari buruz Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Enpresaburuak Cirmauto enpresa –Citröen-en kontzesionario ofiziala– itxi duela-eta (langileak greban daude aurtengo azaroaren 4az geroztik), honako hau jakin nahi dut:

- Gobernuak Lan Zerbitzuak txostenik edo ebazpenik eman al du?

- Hala baldin bada, zer dio emandako txosten edo ebazpenak?

- Departamentuak zer iritzi die enpresa ixteak Cirmautoko langileen grebarako eskubideari begira dituen ondorioei?

Iruñean, 2021eko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

## **Galdera, Estatuko segurtasun indar eta kidegoek Nafarroako larrialdiak koordinatzeko zentroan parte hartzeari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Estatuko segurtasun indar eta kidegoek Nafarroako larrialdiak koordinatzeko zentroan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Guardia Zibilaren Nafarroako arduradunak aspaldixkotik ari dira behin eta berriro auzitan jartzen Nafarroako larrialdien arreta-zerbitzuaren funtzionamendua egokia ote den, auzitan jartzeraino behar bezala erantzuten ote zaien gertatzen diren egoerei, “gertueneko polizia-baliabidea” arduratzen ez delako herritarrei zerbitzu hori emateaz.

Prentsan agertu denaren arabera, orain dela gutxi –zehazki, azaroaren 21ean– Guardia Zibilak

berak segurtasunari buruz antolatutako jardunaldi batzuetan, koronel buruak adierazi du auzia “premiatzkoa” dela, gaur egun dauden protokoloekin ez litzakeelako erantzun egokirik emanen “sute, bortxaketa edo genero-indarkeriako kasurik larrietan, non kritikoa baita erantzun bat emateko dagoen denbora; horietan, modua jarri behar dugu gertakariak gertuen dagoen polizia-patruila izan dadin hura ebazten duena”.

Nafarroak arlo horretan dauzkan eskumen osoak eta Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legean xedatutakoa ahaztuta, Guardia Zibilararen koronelak proposatu du “sala bateratu bat – presentziala nahiz birtuala izan daitekeena– eratztea, bertan jaso daitezen erreferentziazko gure telefono-zenbakietan jasotzen ditugun gertakari guztiak”. Nafarroako legediak ezartzen duenez, Nafarroari dagokio larrialdiak kudeatzeko zentro bakarra eta integratua izatea Nafarroako lurralde osorako. Larrialdietako deiak jasotzeko eta esku hartu behar duten zerbitzuak koordinatzeko etengabeko zentro gisa arituko da, zerbitzu horietako aginte eta koordinazio zentroak alde batera utzi gabe. Larrialdiko deiak artatzeko zerbitzu publikoa, berriz, 112 telefono-zenbakiaren bidez emanen da.

Egun horretan berean, Nafarroako Gobernuoko barneko zuzendari nagusi Amparo Lópezek honako hau adierazi zuen: “bada proiektu bat Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak 112an sartzeko. Legegintzaldi asko daramatzagu horrela, ez da erraza, baina egin egingen dugu”.

Gauzak horrela, galdera hauek egiten dira:

1.- Gobernua bat al dator Guardia Zibilararen koronelaren proposamenarekin (“sala bateratu bat –presentziala nahiz birtuala izan daitekeena– eratztea, bertan jaso daitezen erreferentziazko gure telefono-zenbakietan jasotzen ditugun gertakari guztiak”)?

2.- Gobernuaren ustez, presentziala nahiz birtuala izan daitekeen “sala bateratu” eratuz gero Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudea-

ketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea urratuko litzateke?

3.- Gobernuaren ustez, urraketa hori gertatuko litzateke arlo horri buruzko Nafarroako legediak ezartzen duelako Nafarroari dagokiola larrialdiak kudeatzeko zentro bakarra eta integratua izatea Nafarroako lurralde osorako, eta Larrialdietako deiak jasotzeko eta esku hartu behar duten zerbitzuak koordinatzeko etengabeko zentro gisa arituko dela?

4.- Gobernuaren ustez, poliziak esku hartu beharreko larrialdietan beste administrazio edo segurtasun indar batzuekin koordinatzeko aski izanen al litzateke Foruzaingoaren Aginte Zentroak polizia indar guztien geoposizionamendua edukitzea, kasuko larrialdia artatzera zein joan beharko litzatekeen erabakitzeko?

5.- Gobernuaren ustez, Nafarroako Guardia Zibilak egiaz nahi duena ez al da unean-unean sarbide zuzena izatea 112 telefono-zenbakian artatzen den zerbitzuan jasotako informaziora?

6.- Gobernuaren ustez, Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroa izan beharko litzateke, larrialdiei buruzko indarreko protokoloekin bat, poliziak esku hartzea eskatzen duten 112ko deien jasotzaile bakarra, halako moduan non berak erabakiko bailuke kasuaren ardura zer polizia indarri egokitu?

7.- Zer proiekturi buruz ari zen Nafarroako Gobernuoko barneko zuzendari nagusia azaroaren 21ean adierazi zuenean badela “proiektu bat Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak 112an sartzeko”? “Sartze” hori zertan gauzatzen da? Polizia-unitateen geoposizionamendua trukatzeaz haragoko zerbaiti buruz ari al zen?

8.- Barneko zuzendari nagusiak zergatik adierazi zuen orain “egin egingen” dela Guardia Zibila eta Polizia Nazionala 112an sartzeko proiektua? Horri buruzko egutegirik adostu al da Estatuko Administrazioarekin?

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique



